



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **OINARRI ESPEZIFIKOAK, ZEINEK ARAUTZEN BAITUTEN ARABAKO KALKULU GUNEA AB – CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. FORU SOZINETATE PUBLIKOAN ZERBITZUEN KUDEATZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO PROZESUA**

**(deialdiaren kodea: 2023005)**

### **LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

Erosketa, Erabiltzaileentzako Arreta eta Ekipamendu Alorrean integratuko da, proiektuaren buruaren eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

Lanbide jardueran AKSAn ondoko eginkizunak bete beharko ditu:

- Zerbitzu baten eskaria zerbitzu horri buruz erregistratutako datuetan oinarrituta interpretatzea eta haren kurba aztertzea, beharrak aurreikusiz eta urtaroko kanpainak proposatuz. Gainera, kontratua zabaltzea edo aldatzea ekar dezaketen eskari gehikuntzen berri ematea bere proiektu buruari edo arloko arduradunari.
- Arloko sarrerak jasotzea, banakatzea eta ekintza bihurtzea. Sarrera horiek 360 graduko esleipenen bidez banatuko dizkie arloko arduradunari, proiektuen buruari, espezialistari, teknikariei edo enpresa esleipendunen koordinatzaileei.
- Erabiltzaileen beharrak (erreaktiboak eta proaktiboak) hautematea, haiekin bilerak egitea eta alternatiba teknologikoak proposatzea (AKSAk edo merkatuko produktuen bidez garatuak).
- Eskaera konplexuak jarduketa bihurtzea gorabeherak eta eskaerak ebazteko prozesuetan parte hartzen duten euskarri desberdinentzat, eta jarduketa horiek nola gauzatu koordinatzea eta planifikatzea.
- Erabiltzaileei arreta emateko irizpideak eta prozedurak ezartzea.
- Dokumentatzea prozedurari edo metodologikoari buruzko alderdiak eta erabiltzaileei emandako irtenbide berriei buruzko alderdiak.
- Intzidentziak kudeatzeko tresnan ebaztea intzidentziak eta eskaerak ebazteko prozesuetako zerbitzuen kudeatzaileari eta/edo intzidentzien kudeatzaileari esleitutako jarduketak.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Erosketa teknikariari laguntzea zalantzak argitzen, bai zalantza teknikoak zein Aldundiko eta erakunde kideetako lanpostuen zerrendari eta/edo zerbitzuaren ezaugarriei buruzkoak.

#### **LAUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dute oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa helbide honetara: [2023005@qualisconsultores.es](mailto:2023005@qualisconsultores.es); bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, hainbat mezutan banatuta bidaliko da, bakoitzean gehieneko baimendua gainditu gabe.

**Eskaerak aurkezteko epea 2023ko urriaren 16an bukatuko da.**

#### **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:**

- Informatikako goi-mailako ingeniaritza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea.
- Goi-mailako beste ingeniaritza batzuk edo gradu baliokideak.

#### **LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**

##### **1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:**

**Nahitaezkoa eta baztertzaila** izango da (GAI – EZ GAI).

- Information Technology Infrastructure Library (ITIL).

Ziurtagirien bidez egiaztatzea goian adierazitako ezagutza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **2. FASEA MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):**

### **A) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (geh. 10 puntu):**

- Informatikako goi-mailako ingeniaritza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 8,5 puntu.
- Goi-mailako beste ingeniaritza batzuk edo gradu baliokideak: 6 puntu.
- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen masterra: 1,5 puntu

Lehenengo bi atalak baztertzailak dira, eta Informatikako goi-mailako ingeniartzaren edo Informatikako lizentziaturaren edo gradu baliokidearen 8,5 puntuak edo, bestela, goi-mailako beste ingeniaritza batzuen edo gradu baliokideen 6 puntuak baino ez dira zenbatuko. Inola ere ezin dira batu bi ataletako puntuazioak.

### **B) Hizkuntzak (4 puntu):**

#### **B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko dira.
- Ez da hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik egingo.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: **puntu 1.**
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

#### **B.2) Hizkuntza: Ingelesa (gehienez 2 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke azterketarik egingo.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,50 puntu**
  - B2: **puntu 1.**
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

### **C) Esperientzia (gehienez 16 puntu):**





Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidez egiaztatuko da.

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtebete baino gehiagoko esperientzia lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• - Oso egoki betetzen du: <b>16 puntu.</b></li> <li>• - Nahiko egoki betetzen du: <b>12 puntu.</b></li> <li>• - Oso egoki betetzen du: <b>8 puntu.</b></li> <li>• Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li> <li>• Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu</b></li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtebete baino gehiagoko esperientziako lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• - Oso egoki betetzen du: <b>16 puntu.</b></li> <li>• - Nahiko egoki betetzen du: <b>12 puntu.</b></li> <li>• - Egoki betetzen du: <b>8 puntu.</b></li> <li>• - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li> <li>• - Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b></li> </ul>

Balioespena egiteko:

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ulertuko da:</li> </ul>	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako hasierako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du:	%100
Nahiko ondo betetzen du:	> % 66 eta < % 100
Ondo betetzen du:	> % 33 eta <= % 66
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka:	>% 0 eta <=% 33
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka:	%0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzia egoeran egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babesteko edo norberaren bizitzaren, familiarenaren eta lanaren kontziliazio erantzunkidea errazteko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora baloratzea, bai eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak zenbat denboran erabili dituzten ere.

### **3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN EZAUGARRIETARAKO EGOKITASUN PROBA PSIKOMETRIKOAK**

- **Nahitaezkoa eta baztertzaila** izango da (**GAI – EZ GAI**).
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten lau pertsoneri.
- Proba psikometrikoak:
  - Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
  - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
  - Ariketaren xedea hauexa izango da: ezarritako denboran, galdetegi bati idatziz erantzutea (aukera anitzeko erantzunak).
  - Ariketa hau zuzentzean, erantzun zuzenen kopuruari akatsen kopuruaren heren bat kenduko zaio ( $V = A - E/3$ ). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balioespena ehunenetan moztuko da.<sup>12</sup>
- Balorazioa GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako proba psikometrikoetan gai izan direnentzat.
- Balorazioa EZ GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu baino gutxiago lortu edota fase honetako proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatuz gero edo uko eginez gero, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta lau puntuazio onenak dituztenak.

V= ariketen balioespena, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.  
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, dezimal jakin batetik aurrera. AKSaren kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

#### **4. FASEA: GAITASUNEI ETA GAITASUN TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (20 puntu, geh.)**

- **Nahitaezkoa.**
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsoneri eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- Elkarrizketak bi zati izango ditu:
  - **Gaitasun arloa:** Elkarrizketa honetan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (gehienez, 10 puntu)
    - Argot teknikoarekin nahiz hizkera ez-teknikoekin eraginkortasunez komunikatzeko eta aholku emateko gaitasuna.
    - Autonomia, ekimena, erabakitzeko gaitasuna eta analisirako gaitasuna.
    - Frustrazioari aurre egiteko eta presiopean lan egiteko gaitasuna.
    - Talde lanerako eta emaitzetara bideratutako lanerako gaitasuna.
    - Asertibotasuna eta malgutasuna.Fase honetako puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:
    - Gaitasunik eza: 0 puntu.
    - Gaitasuna garatzeko fasean: puntu 1.
    - Gaitasun maila bikaina: 2 puntu
  - **Teknika arloa:** Elkarrizketa honetan, ondoko ezagutza hauek baloratuko dira: (gehienez 10 puntu)
    - Zerbitzuen kudeaketa: 2,5 puntu, gehienez
    - ITko azpiegiturari eta arkitekturari buruzko funtsezko ezagutza sendoak: 2 puntu, gehienez
    - Microsoft Office 365 eta laguntzarako tresnak: 1,5 puntu, gehienez
    - Kalitate proiektuak eta prozesuak kudeatzea: 1,5 puntu, gehienez
    - Aplikazioak ezartzea (SSCM): 1,5 puntu, gehienez







Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Kontratazio publikoa: 1 puntu, gehienez

- Gaitasunei eta gaitasun teknikoari buruzko elkarrizketaren akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketa epaimahaiko kide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
  - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
  - Zati teknikoa: 5 puntu.
- 4 hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalasetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonek jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak hiru baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaia hurrengo hautagaira edo hautagaietara joko du, gai diren gutxienez hiru hautagai izan arte.

**PUNTUAZIOEN LABURPENA, FASEKA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	EG/G	20	50

